



(+34) 636 134 265  
San Martin, 36 - 3.B  
20005 DONOSTIA

# Farmaberri

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



Gontzal Garcia del Caño, Maillo Virto, Aintzane Asurmendi irakasleak eta Aurora Fdez. Astorga fakultateko dekanoa

## X. BATZAR OROKORRA FEUSEren Farmaburua EHUko Farmazia Fakultateari

*J*oan den apirilaren 3an, igandea, ha-maikak eta laurdenetan, hogei bat lagun bildurik, Bastidan (Araba) dagoen Granja Ntra. Sra. de Remelluri upeltegietan, hasiera eman genion batzarrari. Aurreko Batzarraren akta (2004/03/28) irakurri eta onartu ondoren 2004ko oroitza-txostenaren berri eman zen.

### 2004ko Oroitza Txostena

Batzorde Zuzendaria bost bilera egin ditu 2004an: urtarrilean, martxoan, maiatzean, irailean eta azaroan, hain zuzen.

Martxoaren 28an, FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEAREN IX. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna Bilbon egin genuen. Batzarra bukatu ondoren Javier Saenz de Buruaga omendu genuen. Egun berean, Arrate Jauregi eta Itziar Fernandez de Larrinoa lankideek jaso zuten lehenengo FEUSE SARIA eta saritutako lanari buruz hitz egin ziguten.

Udazkenean, farmaziaren arloan, euskararen erabilera bultzatzeko, indartzeko eta normalizatzeko egiten diren ekimenak, egitasmoak eta ekintzak eskertzeko FEUSEren FARMABURUA sortu genuen. Edo-

zein gizabanakok, taldek, erakundek edo elkarteak eskuratu ahal izanen du. FEUSEren FARMABURUA Bernat Vidal eskultoreak egindako artelana da eta gure elkartearen ikurra du oinarri. Batzorde Zuzendariaren asmoa da garaikurra bi urtean behin ematea.

Urtero legez, FEUSEko hainbat kide Euskal Herriko komunikabideetan azaldu gara farmaziari dagozkion gai ezberdinez hitz egiteko.

FEUSEko kideok jaso genuen otsailean Kanabisaren alderdi desberdinak eta ezauzgarriak liburua eta Farmaberri aldizkaria otsailean, ekainean eta urrian.

### Diruzaintzaren txostena

Elkartearen diruzaintzari buruzko datuak jakitera eman ziren: 2004ko balantzea eta 2004ko sarrera-irteerak, hain zuzen. Halaber, 2005erako aurrekontua ezagutzera eman zen. Txosten





Hogei bat lagun elkartu ziren joan den apirilaren 3an egindako Bastidan egindako batzarrean.

guztiak ontzat eman ziren. Elkartearen egoera ekonomikoa onbideraturik dago. Era berean, aurtengo kuota 30 eurokoa izatea onartu zen (Elkartea sortu zenetik kuota ez da aldatu).

### **Egitasmo Txostena**

Egun, Elkarreak 219 kide ditu: 10 Araban, 47 Bizkaian, 100 Gipuzkoan, 57 Nafarroan, 2 Lapurdin, 1 Nafarroa Beherean, 1 Burgosen eta 1 Malagan. Horieta 150 emakumezkoak dira eta 69 gizonezkoak.

#### **1. FEUSEren FARMABURUA**

Batzorde Zuzendariak, 2005eko otsailaren 2an egindako bileran, erabaki zuen Euskal Herriko Unibertsitateko FARMAZIA FAKULTATEAri ematea FEUSEren FARMABURUA, azken urteotan, fakultatean bertan, euskararen erabilera normalizatzearen alde emandako aurrerapausoengatik.

#### **2. BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA**

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria sortu du gi-

zarte eragileek euskararen normalizazioaren bidean egiten dituzten urratsak saritzeko. FEUSEk beste elkarre eta erakundeekin batera Bai Euskarari Akordioa sinatu zuen 1999an eta Bai Euskarari Ziurtagiria lortu du sortu zenetik, 2000an, hain zuzen.

Kontseiluak hartutako konpromisoen jarraipena egiten du, eta alde aurretik zehaztutako konpromisoak betetzen dituzten eragileek jasotzen dute ziurtagiria. Honen urtebeteko balioa dauka eta ondoren ebaluazio bat egiten da. Elkartearen asmoa da, berriz ere, Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko.

#### **3. II. FEUSE SARIA**

Euskaraz sortutako farmazia arloko testu teknikoaren kopurua eta kalitatea gero eta handiagoak izaten laguntzeko asmoarekin FEUSE SARIA sortu genuen 2003an. Batzorde Zuzendariak, 2005eko otsailaren 2an egindako bileran, erabaki zuen, aurrean, sariaren bigarren deialdia egitea. Sariaren oinarriak eta baldin-

tzak lehenengo edizioaren antzekoak izanen dira.

#### **4. FEUSEren WEB ORRIA**

Aro informatikoan bizi gara, internetaren garaian. Teknologia berriek eskaintzen dizkiguten bitartekoak egokiak izan daitezke gure arteko harremanak errazteko. Internet tresna egokia da interesatzen zaizkigun farmazia arloko gaiak garatzeko. Saiatuko gara Intraneta sortzen elkarlanean aritzeko; elkartekideok datuak eta informazioa trukatzeko on line sistemaren bidez. Era berean, prozesua gauzatzeko, erakunde publikoen dirulaguntza eskuratzen ahaleginduko gara.

#### **5. KIDE BERRIAK EGIN**

Zenbat eta kide gehiago izan, orduan eta indartsuago, ederrago FEUSE. Guztion lana da. Ezagutzen dugun lankide euskaltzale hori, dela gazte dela heldu, saiatu behar dugu geureganatzen. Horren kariatara, bazkide berriak geureganatzeko Batzorde Zuzendariaren asmoa da kanpaina berri bati ekitea.




Pello Iturria eta Farmazia Fakultateko 3 irakasle eta dekanoa andrea

### **FEUSEren Farmaburua EHUko Farmazia Fakultateari**

Batzarra bukatu ondoren, Granja Ntra. Sra. de Remelluri upeltegietan bertan, Pello Iturriak gure elkarteko lehendakariak Aurora Fernandez Astorga EHUko Farmazia Fakultateko dekanoa andrea eman zion Fakultateak berak irabazitako FEUSEren FARMABURUA. Pellok azken urteotan EHUko Farmazia Fakultatean euskararen erabilera normalizatzearen alde egindako lana goraiatu zuen. Dekano andreak, bere aldetik, fakultatearen izenean, eskerrak eman zizkigun eta ildo beretik segitzeko asmoa dutela gaineratu zuen; hau da, euskararen erabilera normalizatzearen alde lan egingez.


Duela hamar urte bost irakasle hasi ziren euskarazko eskolak ematen EHUko Farmazia Fakultatean. Horieta hiru dekanoa andreakin etorri ziren Bastidara: Aintzane Asurmendi, Gontzal Garcia del Caño eta Mailo Virto. Beste biek, Pedro Arciniegak eta Rosario Berrandok ezin zirela etorri adierazi zuten. Guztiek oso pozik hartu zuten FEUSEren FARMABURUA garaikurra. Jarraian, neska jator aditu batekin, upeltegiak bisitatu genituen. Bertako, berezko janari eta ardo gozoek amaiera eman zioten jai egunari. Bastidako inguru eder horietan, bada, egun ederra pasatu genuen guztiok.

**Osteoporosiaren tratamenduan erabili izan den Paratiroidea-hormona (PTH)ren zati edo fragmentu bat da teriparatida, biologikoki eraginkorra den zati bat. Gauza jakina da PTHa eta bere zatiak hezuraren osaketan oso garrantzitsuak direla, hezur masa igo edo jeisten dutelako pertsonaren egoera fisiopatologikoaren arabera.**



Azalpeko bidez teriparatida egunero hartuz (bi urterainoko tratamendua), bizkar hezurreko dentsitate minerala %10-12an igotzen da plazeboarekin konparatuz, bizkar hezurra hausteko arriskua %65-69an jeisten da. Beste hezurretan ez zuen hainbeste igotzen dentsitate minerala eta hausteko arriskua jeisten duenik ez da hain garbia (bereziki mozkorra).

Saiakuntzak 20µgr eta 40µgr-rekin egin ziren. 40µgr-rekin ez zen eraginkortasunean asko nabari, bai aurkako eraginetan berriz. %17ak izan zuten aur-



## Teriparatida (Forsteo) berrikuntza esanguratsua osteoporosiaren tratamenduan

kako eragin garrantzitsuren bat, ez dago ahazterik, baina nahiko ongi toleratzen dela esan daiteke, batez ere, lortzen den hobekuntza terapeutikoa kontutan hartuz. Teriparatida ziurra da egoera normaletan (osteosarkoma metastasiarekin zuten arratoietan bakarrik ikusi da heriotza azkarrago etortzen zela).

### **Ez da gomendatzen**


- Paget-en eritasunean
- Aurrez radioterapia hartu duenarentzat

- Osteosarkoma izateko arrisku faktoreak dituztenentzat
- hiperkaltzemia edo hipertiroidismoa dutenentzat

### **Orain arteko terapiekin konparatuz aurrerapenak edo hobekuntzak**

Orain arteko tratamenduek (THS, raloxifenoa, kalzitoniak eta bifosfonatoak), osteoporosia geldiarazten dute, eta bifosfonato batzuk (alendronatoak adibidez) bizkar hezurra ez beste hezurra hausteko arriskua jeisten dute, baina tratamendu guzti hauek ez dute hezuraren arkitektura ukitzen, hau da, ez dute hezurra berosatzen eta hezuraren arkitektura bereraikitzen. Teriparatida da beraz funtzio hau betetzen duela frogatu den bakarra. Lehenago hezurren bat hautsi duenak, eta hausteko arriskua duenak (batez ere bizkar hezurra) osteoporosia geldiaraztearekin ez du nahikoa izanen.

Kasu hauetan aukerako tratamendua da nahiz eta eragozpenak badituen: ez da eroso azalpeko bidea, aurkako eraginak, eta garrantzitsua da baita ere ez dagoela bi urte baino gehiagoz eginiko ikerketarik. Beraz, bere mugekin baina terapia-bide oso interesgarria irekitzen da.



Oinarriak**II. Feuse Saria**

- Farmaziarekin zerikusia duten euskaraz idatzitako lanak onartuko dira.
- Lanak originalak eta argitaratu gabeak izango dira. Horrela ez izateagatik sor daitezkeen arazoaren ardura egileena izango da eta FEUSEk ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik.
- Egileak bat edo gehiago izan daitezke, baina guztiak farmazialari edo farmazia fakultate bateko ikasle izan behar dute. Baldintza hau egiaztatzeke agiriak aurkeztu beharko dira.
- Irudiak, grafikoak, argazkiak edo bestelako eranskinak zenbakiturik eta testuarengatik berezirik aurkeztuko dira.
- Lana osatzen duen testu guztia fitxategi informatikoan aurkeztuko da eta, aldi berean, ale bat DIN A4 formatuan inprimaturik aurkeztuko da.
- Lana prestatzeko erabilitako bibliografia ere aurkeztu beharko da.
- Lanarekin batera gutun bat igorri beharko da, bertan lanaren izenburua eta egilearen edo egile taldearen izen goititua aipatzen direlarik. Gainera, kartazal itxi baten kanpoaldean ere lanaren izenburua eta izen goititua berbera jarriko dira eta kartazalaren barruan egilearen edo egileen izen-deiturak eta harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa gordeko dira.
- Aurkezpen gutuna, inprimaturiko lana, euskarri informatikoan gordetako bertsioa eta egilearen edo egileen datuak gordetzen dituen kartazal itxia elkarrekin igorriko dira honako helbidera: Aita Menni Ospitalea. Juan Carlos Aristorena jauna. Farmazia Zerbitzua. K/Gesalibar 15. 20509 Arrasate (Gipuzkoa).
- Lanak jasotzeko epea: 2005eko urriaren 31 bitartekoa izango da.
- Partehartzaileak: Farmazialariak edo farmazia fakultateetako ikasleak.
- Lanak aztertuko dituen epaimahaia FEUSEk izendatuko du. Epaimahaikideek ezin izango dute lanik aurkeztu deialdi honetan.
- Epaia 2005eko abenduaren 31 baino lehen jakinaraziko zaio irabazleari.
- Epaimahaiaren erabakiaren aurkako helegiterik ez da onartuko.
- Sariaren kopurua 3.000 € izango da eta zatietan da.

Irungo Udalak sustatua**Jose Antonio Loidi Ikerketa beka 2005**

Aldizkari honekin batera bidaltzen dizuegu Irungo Udalak urte honetarako Jose Antonio Loidi bekari buruz prestaturikoa. Gure ohorezko lehendakari zenaren izena duen bekaren seigarren deialdia da. Ezaugarriak eta baldintzak irakur ditzakezu bertan. Harreman eta informaziorako helbideak: Irungo Udala. Euskara Arloa. San Juan harria plaza 1. 20304 Irun. Helbide elektronikoa: euskara@irun.org Telefonoa: 943 649250. Web gunea: www.irun.org

luz 4 proiektu aurkeztu ziren (3 norbanako eta talde 1). Beka jasozuen proiektua Ibon Goikoetxea Retegi eta Elisabeth Trojola Zubizarretaren *Irungo Udalerriko gune berdeen diagnosis eta eraztun berdearen proposamen eta diseinua* izan zen. Bekatutako proiektuaz gain epaimahaiak partehartzaile guztiei zorionak ematea erabaki zuen, beren proiektuen kalitatearengatik. Botanikari buruz aurkeztu ziren bi proiektu, bat antropologiari buruz eta beste bat literaturaren gainean.

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak antolatua**VI. Agote Saria**

Osasun-munduarekin zerikusia duten euskarazko ikasketetan dagoen testu-hutsunea arintzeko helburuarekin Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) 6. JOSE ANTONIO AGOTE SARRIA antolatzen du.

Lan osoaren aurrerapena 2005eko urriaren 31 baino lehen bidali beharko da. Erabakia 2005eko abenduaren 31 baino lehen jakinaraziko da. Saria 1.700 eurokoa izango da. Informazio gehiago: www.oeeunea.org

Miarritze eta Iruñearekin batera, lehenengoz Eibarren**UEUK 33. edizioa**

Udako Euskal Unibertsitateak hogeita hamahirugarrenez antolatzen ditu udako ikastaldiak. Aurtengo honetan Miarritze (uztailaren 4tik 8ra), Iruñea (uztailaren 18tik 22ra) eta, lehenbizikoz Eibarren (uztailaren 11tik 15era), etengabeko biziberritzean. Aukera zabala eta askotarikoa UEUKo sailek antolatutako ikastaro hauetan (natur zientziak, osasuna, psikologia, ekonomia, sexologia, arkitektura, antropologia, informatika, kimika, soziologia, artea, historia, literatura...)

UEUKen udako euskal ikastaldiak unibertsitario euskaldunen bilgune izateaz gainera euskal kulturaren erakuslehoia ere badira, beren bitartez, komunitate unibertsitario euskaldunak elkarrekin berri du, elkar ezagutu, lanak, proiektuak, ikerketak partekatu. Hurbila, irekia, anitza eta alaia.

UEUKen webgunean duzu ikastaro horien berri: www.ueu.org